

“MUNGIAKO ANDRAZKOEN HISTORIA BEGI BARRIZ IRAKURTEKO ”

IKERKETA-AZTERLANA ARAUTUKO DABEN OINARRIAK

1. AURREKARIAK

Sarritan, emakumeak "historia ofizialetik" baztertuak izan dira eta bardintasunean bizi gura badogu emakume horreen zeregina eta beharra berreskuratuteko ahalegina egin behar dogu.

Emakumeen historia ezkutuan egon da gizaldietan zehar, eta orain hamarkada gitxira arte ez dogu euki hori ezagututen hasteko aukerarik be. Emakumeek zeregin oso garrantzitsua euki dabe gizarteetan, seme-alaben ama eta mendeko pertsonen jagole moduan eta baita gizarte mailan gitxietsi egiten dan etxeari eusteko rolean be. Baina, hori ez eze, historiak, gizonak idatzitakoak, ezkutatu egin dau garapen politiko, zientifiko, sozial, kultural eta ekonomikoan emakumeek egin daben lana eta euki daben garrantzia.

Historiaren gizaldi osoak emakumeak aintzat hartu barik kontau dira, emakumeak ikusezin bihurtuz, gizonen historia Gizateriaren Historia zalako.

Proiektu honen helburua historia beste era batera irakurtea da, zehatzago esanda, Mungia historia. Irakurketa barri hori genero-ikuspegiagaz, iragan urruneko edo hurbileko emakume mungiarren protagonismoa berreskurau guran egingo dogu, udalerrri honen onerako izan dan lana, pentsamendua edo beharra egin dabelako edo Mungia alabak izan diralako eta ekarpena egin dabelako hango edo hemengo beste pertsona batzuen garapenean, aberastasunean edo ongizatean.

Gure helburua emakumeen eta gizonen arteko bardintasan eraginkorra lortutea da, emakumeen eginkizuna ikusarazoteaz gan, eta horretarako beharrezkoa da ikertutea zer genero-rol eta -hartuemonetan oinarrituten diran gaur egun emakumeen eta gizonen artean eremu guztietan dagozan desbardintasanak. Holan, ikerketa honen bidez, gure gizartean balioak aldatzen lagunduko da.

Aldi berean, proiektuaren onuradun diran pertsonen prestakuntza eta ibilbide profesionala garatuteko aukerea emotea be bada helburua.

2. HELBURUA

Mungiako Andrazkoen Historia Begi Barriz Irakurteko ikerketa-azterlana egitea eta euren beharra, pentsamendua edo obra udalerrri honetara ekarri daben edo Mungiako alaba izan dan baten edo bertoko alabak izan diran batzuen zeregina ikusarazotea eta aintzatestea, gure mugetatik kanpoko edo hemengo garapen, aberastasun edo ongizateari jagokenez ekarpenak egin badabez.

Proiektu honek gure historia gogoratuteko balio dau, baita ezizen baten atzean ezkutatu diran edo senarren izenaz sinatu daben emakume horreena be; senarraren, aitaren, nebearen... laguntzaile moduan gizon baten itzalean egozanak euren lanak eskaini ahal izateko, eta euren ekarpenak historiara gizon baten lorpen moduan igaro diranak. Proiektuaren helburua dira, baita, euren lanak erakutsi arren gizartean eta, batzuetan, ezta hurbilen eukiezan familietan edo zirkuluetan be, aitortuak izan ez diranak; batzuetan euren lanagatik ordainsari ekonomikorik lortu barik lan gogorra egin daben emakumeak aintztetsi gura doguz; eguneroko zereginagaz gure sustraiak transmitidu dabezanak eta beste emakume batzuegandik bereizitako nortasuna daukienak...

Mungiako emakumeen eguneroko gertaerak gogoratu behar doguz ez ziralako deskribiduten, ez ziralako baloratuten. Emakumeak salbuespen moduan, edo era oso igeskorrean, agertuten dira kontakizunetan. Baina historian inork ez dau hutsik egin behar, eta aztergai hori izango da beharraren gaia, hau da, emakumeek Mungiako historian izan daben zereginaren ganeko informazioa emoten dauan edozein ikerketa.

3. HAUTAKETEA, HORNIDURA EKONOMIKOA, IRAUPENA ETA EZAUGARRIAK

- 3.1. Ikerketa-azterlan honen emokida lehiaketa-prozedurearen bidez ebatziko da. Ondorio horreetarako, lehiaketatzat joko da laguntzinoa emoteko prozedurea; prozedura horren bidez aurkeztuko diran eskabideak alderatu egingo dira eta ikerketa-azterlana emongo jako balorazino-irizpideak aplikatuz puntuazino handiena lortu dauan proposamenari.
- 3.2. Diru-zuzkidurea 3.600,00 eurokoa da. Ikerketeak sor leikezan gastuak esleipendunaren edo esleipendunen kontura izango dira.
- 3.3. Beharrak esleipena egiten danetik lau hilabeteko iraupena izango dau, eta luzapena egin ahal izango da, egoki erizten bajako.
- 3.4. Ikerketea-azterlanaren emokidak ez dau Mungiako Udalgaz inolako kontratu, lan edo estatutu hartuemonik ezarten.

- 3.5. Beharrak ikuspegi historikoa, kulturala, soziala, hezkuntzako, lanekoa, ekonomikoa, antropologikoa... eduki lei, edo diziplina askotakoa izan daiteke.
- 3.6. Pertsona bakarrak edo talde batek aurkeztu ahal izango dau.
- 3.7. Proiektua bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu daiteke. Ganera laburpen bat aurkeztu beharko da, aurkezpen eta ondorio moduan, lanerako aukeratu ez dan beste hizkuntza ofizialean.

4. BETEKIZUNAK

- 4.1. Ikerlanaren izenburua "Bendeja-saltzaileak Mungiako plazan" izango da.
- 4.2. Ikerlana gaur egun edo aurreko garaietan baserriko bizimoduak eskaintzen eban guztia Mungiako plazara ekarten eben mungiarren beharrari eta atazei buruzkoa izango da. Danatarik ekarten eben: frutak, orduetako berdurak eta loreak, esnea, arrautzak, karakolak, oilaskoak, oiloak, untxiak... Bendeja-saltzaileak dira. Euren bizipenak eta euren pertzepzinoak protagonista moduan, gure Herriko behar edo tradizio honen transmisore moduan egiten daben lana, bezeroekaz daukien hartuemonak, euren hasierak, familian eta gizartean daukien zeregina, baserria emakumeentzako bizimodu moduan, ortuko eta kortako behar gogorra.... etxeko beharren luzapen moduan jotzen dana.
- 4.3. Azterlan hau egiteko derrigorrezkoa izango da titulazino honeetarikoa bat eukitea: lizentziatura, diplomatura, unibertsidade-gradua edo erdi-mailako eta goi-mailako LHko ikasketak. Lan-taldean kasuan gitxienez taldeko kideetako batek beharkizun hori bete beharko dau.
- 4.4. Ikerlanak hizkuntzaren erabilera ez-sexista kontuan hartuta idatzita egon beharko dau.
- 4.5. Eskatzaileek ezin izango dira izan bekak, dirulaguntzinoak edo laguntzak lortuteko aukera galduteagaz lotutako zehapen irmorik jasotakoak.
- 4.6. Ikerketa-beharra taldean aurkezten bada, titularkideek pertsona horreetako bat izendatu beharko dabe Mungiako Udalagaz koordinatzaile-ordezkarik beharrak egiteko.
- 4.7. Azterlana egin ahal izateko gehienez be 15 orriko lan-proiektu bat aurkeztu behar da, tarte bikotxagaz alde bakarretik mekanografiata, Tahoma letra-moteagaz eta 12ko tamainuagaz, "Mungiako Andrazkoen Historia Begi Barriz Irakurteko Proiektua" izenburuagaz.

5. AURKEZTUKO DAN DOKUMENTAZINOA

2 gutun-azal itxi aurkeztuko dira. Dokumentazino hori Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da:

5.1 **1. gutun-azalak**, gitxienez, honako honeek izan beharko dauz:

- Proiektuaren izenburua.
- Aukeratu dan gaia genero-ikuspegitik justifikatutea.
- Edukiak.
- Helburuak.
- Metodologia eta kronograma.
- Aurreikusitako emoitzak.
- Alderdi barritzaileak.
- Proiektua zein hizkuntzatan aurkeztuko dan.

Epaimahaiari jagokonez anonimotasuna mantenu ahal izateko, gutun-azal honetan ez da aitatu eskatzaileen izena.

Horregatik proiektuaren sinadurarako balioko dauan goiburu identifikatzaile edo izenburu bat aukeratu da.

5.2. **2. gutun-azala**: kanpoaldean proiektua identifikatuteko goiburua eukiko dau. Barruan dokumentazino hau sartuko da:

5.2.1. Parte-hartzailearen edo taldeko kideen NANaren fotokopia.

5.2.2. Proiektuan parte hartzen dauanaren edo taldeko kideen curriculuma.

5.2.3. Koordinatzaile/ordezkariz izendatu dan pertsonaren hartuemonetarako datuak (izen osoa eta helbidea, posta elektronikoa eta telefono-zenbakia).

5.2.4. Taldea osatuten dabenen erantzukizunpeko adierazopenak eta baimenak. Agiri horreetan, ikerketea hainbat pertsonak egin behar dabenean, horreetako bakotzak prozesuan egingo dauzan eginkizunak eta zereginak zehaztuko dira, eta argi eta garbi zehaztuko da nor izango dan arduraduna.

5.2.5. Une horretan "Erantzukizunpeko adierazopena" aurkeztu beharko da, honako honeen fede emoteko:

- Taldeko pertsonaren edo pertsonen titulazino akademikoa.

- Ogasunagaz eta Gizarte Segurantzegaz egunean egotea (talde bat izanez gero, ikerketa-taldeko kide bakotxarena).
- Eskatzaileak edo eskatzaileek ez daukiela dirulaguntzinoa edo laguntzino publikoak jasotea eragozten deusien zehapen irmo administratibo edo penalik, ez eta horretarako ezgaituten dauan legezko debekurik be.
- Eskabidean eta horregaz batera doan dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak dirala eta laguntzino honeen onuradun izateko indarrean dagoan araudian ezarritako baldintzak beteten debezela.

Esleipenaren unean Mungiako Udala beharraren arduradun moduan agertuten dan pertsoeagaz hartuemonetan jarriko da eta 10 eguneko epean agiri honen amaieran agertuten dan "Erantzukizunpeko Adierazopenaren" 1. eta 2. ataletan adierazotakoa justifikatuteko jatorrizko dokumentazioa entregatuteko eskatuko deutso, horreen egiazkotasuna egiaztatuteko. Aurkezten diran dokumentuek "Erantzukizunpeko Adierazopenaren" eremuan sinatutakoa berresten ez badabe, dokumentazioa faltsutu egin dala ulertuko da eta, beraz, puntuazio handiena lortu dauan hurrengo proiektura igaroko da emokidea.

6. ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

- 6.1. Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira Mungiako Udalaren erregistroan, Trobika kalea 1 (48100) Mungia-Bizkaia.

Era berean, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein lekutan aurkeztu ahal izango dira.

- 6.2. Eskabideak aurkeztuteko epea 2022ko martiaren 25a da, hau da 4 hilabete, udal-webgunean eta udaletxeko iragarki-taulan oinarriak jasoten dauzan Alkatetzaren Dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

7. ESKABIDEETAKO AKATSAK ZUZENDUTEA

Gutun-azalak irekitzean eskabideak guztiz beteta ez badagoz edo eskatutako dokumentazioagaz batera aurkezten ez badira, falta dan dokumentazioa aurkezteko edo antzemandako akatsa zuzendutako eskatuko da. Ondore horretarako 10 egun balioduneko epea emongo da, jakinarazopena egin eta

hurrengo egunetik zenbatuten hasita, eta adierazoko da hala egiten ez bada eskaeran atzera egin dauela ulertuko dala.

8. HAUTAKETA-BATZORDEA

Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatuteko, Hautaketa-Batzorde bat eratuko da. Honako honeek osotuko dabe batzordea, eta guztiek izango dabe berba egiteko eta botoa emoteko eskubidea:

Batzordeburua:

Bakarne Egia Larrauri, Gizarte Ekintza eta Bardintasun Saileko zinegotzia.

Bokala:

Iker Plaza Garai, Gizarte Ekintza eta Bardintasun Saileko arduraduna (edo eskuordetzen dan pertsona).

Idoia Ortiz de Zárate Arkotxa, Kultura Saileko arduraduna (edo eskuordetzen dan pertsona).

Ainhoa Etxezarreta Izagirre, Baliabideen Arloko arduraduna (edo eskuordetzen dan pertsona).

Idazkaritza:

María Jesús Soria Arretxe, Bardintasunerako teknikaria (edo eskuordetzen dan pertsona).

Beharrezkotzat joz gero, epaimahaiko kide izan ahalko dira eta berbea egiteko eskubidea eukiko dabe, baina botorik ez, genero ikuspegidun ikerketearen eta historiaren arloko adituak, bai eta Mungiako emakumeen alkarteetako ordezkari bat be, alkarteek eurek proposauta.

9. HAUTAGAITZAK HAUTATUTEA ETA BALIOESPEN-IRIZPIDEAK

9.1. Hautaketa-Batzordeak beren beregi balorauko dau proiektuak Mungiako emakumeen memoria historikoari jagokonez egindako ekarpena. Emakumeen eta gizonen bardintasunaren arloko prestakuntza eta esperientzia be kontuan hartuko dira, bai eta ikerketa-lanen arloko esperientzia be. Horretarako irizpide honek hartuko dauz kontuan:

9.1.1. Beharraren kalidade orokorra (gehienez 65 puntu).

9.1.1.1 Mungiako emakumeen memoria historikoari egindako ekarpena, helburu argiakaz eta helburu horregaz bat datorren metodologiagaz. (gehienez 40 puntu).

- 9.1.1.2. Ikerlanaren esparru teorikoaren planteamendua genero-ikuspegitik (gehienez 20 puntu).
 - 9.1.1.3. Alderdi barrizaileak (gehienez 5 puntu).
 - 9.1.2. Pertsonaren edo pertsona-taldearen ibilbide profesionala emakumeen eta gizonen bardintasunaren, feminismoaren eta ikerketaren esparruan (gehienez 10 puntu).
 - 9.1.3. Bardintasunari, feminismoari eta ikerkuntzari buruzko prestakuntza (gehienez 10 puntu).
 - 9.1.4. Proiektua euskaraz egitea (gehienez 4 puntu).
 - 9.1.5. Egindako argitalpenak (gehienez 3 puntu).
 - 9.1.6. Mungiako udalerraren historiaren, kultura- eta gizarte-aurrekarien eta proiektuan jasotako emakume-mugimendu eta –taldeen... ezagutza (gehienez 3 puntu).
 - 9.1.7. Proiektua Hautaketa-Batzordearen aurrean defendidutea (gehienez 5 puntu).
- 9.2. 9.1.1etik 9.1.6.era bitarteko ataletan gitxienez 50 puntura iristen ez diran proposamenak ezetsi egingo dira.
- 9.3. 9.1.1etik 9.1.6.era bitarteko ataletan 50 puntu baino gehiago lortuten dabezan hautagaiei alkarrizketa baterako deia egingo jake. Alkarrizketa horretan euren proposamena, lanerako daukiezan aukerak, ikerketan lanaren interesa eta ikuspegia azaldu eta defendidu ahal izango dabez.
- 9.4. Alkarrizketan, eskatzaileak edo, taldearen kasuan, lanaren ordezkari hartuten dauanak egiten dan proposamena azaldu eta defendidu beharko dau, eta epaimahai kalifikatzaileak eduki leikezan zalantzei edo egin leikezan galderari erantzun beharko deutse.
- 9.5. Proiektuaren puntuazino orokorra 9.1.1etik 9.1.6.era bitarteko ataletan lortutako puntuen eta lanaren ahozko defentsearen bidez lortutako puntuen batura izango da.
- 9.6. Hautaketa-Batzordeak esleipen-txosten bat jaulkiko dau egindako balorazinoan oinarrituta. Txosten horretan hautatutako pertsona edo taldea adierazoko da, bai eta erreserba-zerrenda bat be, hautagaiek lortuko daben puntuazino-ordenearen arabera eta onuradunak edo taldeak hautagaitza erretiratzen badau zerrenda hori erabiliko da ordezkari izendatuteko.

- 9.7. Batzordeak deialdia hutsik geratutea proposatu ahal izango dau ikerketan ez bada iristen proposamenaren azalpenean eta defentsan beharrezkoa dan kalidadera.
- 9.8. Deialdi honetan parte hartuteak oinarri honeek eta hautaketaren emoitza erabat onartutea dakar.
- 9.9. Oinarri honeetan aurreikusi bako edozein egoera epaimahaiak ebatziko dau.

10. EBAZPENA

- 10.1. Esleipena ebazteko eskumena alkatearena da, Hautaketa-Batzordeak proposamena egin ondoren.
- 10.2. Hartutako erabagia azterlanaren onuradunei eta onuradun ez diran ganerako eskatzaileei jakinarazoko jake, Alkatetzaren Ebazpenaren bidez.
- 10.3. Ebazpena emoteko eta jakinarazoteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epearen azken egunaren biharamunetik zenbatuten hasita.

11. LANEN JABETZA

Egindako beharrak jabetza intelektualaren eskubidea araututen daberen arauen esparruan erabiliko dira, indarrean dagoen legerian jasotako baldintzetan.

Halanda be, bai proiektua eta bai azken emoitza egilearen edo egileen jabetzakoak izango dira, baina obra argitaratuteko eta zabalduetako eskubideak Mungiako Udalarenak izango dira lehenengo hiru urteetan. Udalak obra argitaratuten badau beti egilea aitatzuz egingo dau, eta egileari argitalpenaren aleen %10 emongo jako. Edozelan be, bi ale gordeko dira artxiboan eta liburutegian. Liburutegikoa baldintza normaletan kontsultatu eta mailegatu ahal izango da.

Jabetza Mungiako Udalarena dan hiru urteko epea igaro ondoren, egileak edo egileek sortutako materiala argitaratuten badabe, Mungiako Udalari argitaratutako ale-kopuruaren %10 emon beharko deusie.

12. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

- 12.1 Deialdi honen atal guztien ondoriozko erabagi guztiak betetutea.

- 12.2. Emokida onartuten dala idatziz jakinarazotea Alkatetzaren Ebazpena jaso eta 15 egun balioduneko epean; eta arrazoiren batengatik aurreikusitako lan-programea garatuterik ez badago, zenbateko hori itzultzeko konpromisoa hartutea.
- 12.3. Azterlana emon dan helburu horretarako erabiltea eta Mungiako Udaleko Bardintasunerako Zerbitzuari, zehaztuko dan egutegiaren arabera, egindako beharrari eta lortuten diran emoitzei buruzko informazioa emotea. Behar eta helburu horreek adostasuna edo oniritzia jaso beharko dabe.
- 12.4. Proiektua bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu behar da. Ganera, laburpen bat aurkeztu beharko da, aurkezpen eta ondorio moduan, lanerako hautatu ez dan beste hizkuntza ofizialean.
- 12.5. Egindako beharren argitalpenetan eta publizidade guztietan Udalaren laguntzinoa jaso dala jakinarazotea; ataza hori erakundearen logotipoa eta esaldi hau kopiauta egingo da: "Lan hau Mungiako Udalak "Mungiako Andrazkoen Historia Begi Barriz Irakurteko" proiektua egiteko emondako ikerketa-azterlanaren bidez egin da".
- 12.6. Ikerketa-lanaren kopia emon beharko jako Udalari, alde bat euskarri informatikoan eta beste bat paperean, baita beharra egiterakoan sortutako edozein ikus-entzunezko materialarena be. Mungiako Udalak zati baten edo osorik zabaldu ahal izango dau amaierako produktua. Zabalkuntza hori herritarrak sentsibilizatuten lagunduteko eta ikerketearen egileen etorkizun profesionala sustatuteko eta lagunduteko egokitzat jotzen diran bide eta euskarrien bidez egingo da, betibe lanen egiletza egokia eta jabetza intelektualaren eskubidea araututen dauzan araudia erabat errespetatuz eta oinarri honeetako 11. paragrafoagaz bat etorritz.
- 12.7. Ikerketa-azterlana amaituta dagoanean faktura bat egitea, egindako lanaren kontzeptupean, fakturazinoari buruzko legezko xedapenen arabera.
- 12.8 Onartu ondoren ikerketa-azterlanari uko egiten bajako, azken lana aurkeztu ez bada, edo oinarri honeetan jasotako baldintzak beteten ez badira, oinarrietan aurreikusitako eskubide guztiak galduko dira.

13. DATU PERTSONALEN BABESA

Eskabidea aurkezteko unean, pertsona edo talde eskatzaileak aitortu egiten dau oinarri honeetan ezarritako baldintza guztiak beteten dauzela eta osorik onartzen dauzela. Era berean, adierazoten dau eskabidean agertuten diran datu pertsonalak bere baimenagaz jaso dirala, eta onartu egin dauala datu horreen tratamendu automatizatua egitea eta datu pertsonalak tratatzeko jardueren Mungia Udalaren erregistroan sartutea. Hori ez eze, baimena emoten dau datu horreek gai honegaz lotutako jakinarazopenen kudeaketan bakarrik erabili daitezela. Halanda be, datu pertsonalak babesteko araudi orokorrean aurreikusitako kasuetan, datu horreek beste administrazio publiko batzuei edo hirugarren alderdiei transmitidu edo laga ahal izango jakez.

14. ORDAINDUTEKO EREA

Zuzkidurea 3.600,00 €-koa izango da, eta ikerketa-lana entregatu ondoren ordainduko da, jagokon faktura aurkeztu eta ostean.

Luzapen bat ezarri ezker, zuzkidura ekonomikoa berrikusi ahal izango da; dana dala, zuzkidura horren guztizko muga, luzapena barne, 5.000 eurokoa izango da.

15. JARRAIPENA

Mungia Udalak beharraren garapenaren etenbako jarraipena egingo dau aldizkako bileren bidez. Ebatzi beharreko gai guztiek Mungia Udaleko Bardintasun Zerbitzuaren aholkularitza izango dabe.

16. EZ-BETETZEAK ETA ITZULTZEKO PROZEDUREA

Ikerketa-beharra emotea eragin daben baldintzak beteten ez dirala egiaztatzen bada, 9/2007 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak ezarritakoagaz bat etorri, jasotako zenbatekoak eta legezko korrituak itzultzeko betebeharra egongo da, betibe bidezkoak diran ganerako akzinoei kalterik egin barik.

Itzultzeko prozedura legean xedatutakoa betez gauzatuko da.

17. ARAUBIDE JURIDIKOA

Oinarri honeetan aurreikusi bako guztiari lege eta erregelamendu honeek aplikatuko jakoz:

- 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

- 4/2005 Legea, zezeilaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerakoa.
- 3/2007 Lege Organikoa, martiaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Bardintasun eragingarrirakoa.
- 9/2007 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.

18 AZKEN XEDAPENA

Agiri honek Alkatetzaren Dekretu bidez argitarau eta hurrengo egunetik aurrera izango dauz ondorioak.

ZINPEKO ADIERAZOPENAREN EREDUA

"Mungiako Andrazkoen Historia Begi Barriz Irakurtea" ikerketa-azterlanaren hornidurea araututen dauan Alkatetzaren Dekretuaren 5.2.5. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Pertsona bakar baten kasuan:

..... and./jn.
NAN
Helbidea.....

Talde baten kasuan, taldekide guztien izena:

..... and./jn.
(taldearen arduraduna) NAN
Helbidea.....

..... and./jn.
NAN
Helbidea.....

..... and./jn.
NAN
Helbidea.....

..... and./jn.
NAN
Helbidea.....

..... and./jn.
NAN
Helbidea.....

ADIERAZOTEN DAU

1. Taldea eratuten daben pertsona edo pertsonen titulazino akademikoa honako hau dala:

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

2. Ogasunarenganako eta Gizarte Segurantzarenganako zerga-betebeharrak egunean daukazala (talde bat izanez gero, ikerketa-taldeko kide bakotxak adierazo beharko dau).

3. Eskatzaileak edo eskatzaileek dirulaguntzino edo laguntzino publikoak eskuratutea eragozten dauan zehapen irmo administratibo edo penalik ez daukiela, ez eta horretarako ezgaituten dauan legezko debekurik be.
4. Eskabideko eta horregaz batera doan dokumentazinoako datuak egiazkoak dirala, eta ikerketa-proiektu honen onuradun izateko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak beteten dauzala.

13. atalean ezarri danaren ondoretarako, honakoa adierazoten dau:

5. Oinarri honetan ezarritako baldintza guztiak beteten dauzala eta osorik onartuten dauala. Era berean, adierazoten dau eskabidean agertuten diran datu pertsonalak bere baimenagaz jaso dirala eta onartu egin dauala datu horreen tratamendu automatizatua egitea eta Mungiako Udaleko datu pertsonalen tratamendu-jardueren erregistroan sartutea; aldi berean, baimena emoten dau datu horreek gai honegaz lotutako jakinarazopenen kudeaketan bakarrik erabili daitezzen. Halanda be, datu pertsonalak babestuteko araudi orokorrean aurreikusitako kasuetan, datu horreek beste administrazino publiko batzuei edo hirugarren alderdiei transmitidu edo laga ahal izango jakez.
6. Baimena emoten dodala beste administrazino batzuei kontsulta egiteko, oinarri honeetan ezarritako baldintzak beteten diran jakiteko informazioa bilduteko.

Eta holan jasota gera daian eta "Mungiako Andrazkoen Historia Begi Barriaz Irakurtea" ikerketa-azterlanaren emokidara aurkeztu ahal izateko legezko ondorioetarako, adierazopen hau sinatuten dot.

Eguna:
Eskatzailearen edo ordezkariaren sinadurea:

Sin.: